

Hitzatzea

Beldurra gure artean

AITOR ARANA



Zortzi urte zeuzkanean hamabi urteko anaia nagusia zeukan Aitzolek. Harekin jakin zuen, zinea lagun, beldurrak zer nolako zirrarak sortaraz ditzakeen. Drakula ikustera eraman zuen anaiak Aitzol txikia eta, noski, konde odolzalearekiko mutikoaren lehenengo harremanak ikaragarriak izan ziren, hitzaren zentzurik oinarrizkoenean esanda.

Filma ikusi eta gero, Aitzolek oherako orduan kondearen ahotsa izaten zuen gogoan, haren ezpain odoleztatuen irudiekin nahasirik. Mutikoarentzat egiazko erronka zen garai hartan sukaldetik logelarainoko bidea bakarka egitea eta, askotan, txixagurak amorratzen egonda ere, ez zen ausartzen komunera joaten. Egoerak bere hartan iraun zuen Aitzolek berebiziko ideia izan zuen arte: ez al zen Drakula XIV. mendean sortutako izakia? Eta ez al zion eguzkiak kalte hilgarria eragiten? Hala bazen, ezinezkoa izan behar zuen mutikoaren garaian, XX. mendearen bigarren erdian alegia, hain erabilia zen eguzkiaren antzeko



argindarraren argitasuna jasatea. Eta hala izan zen: ideia hura izan zuenetik, Aitzol txikiak nahikoa zuen etxeko edozein argi piztea, Drakularen itzala eremu argi hartatik erabat aienatzeko. Anaia nagusiari ez zion hartaz ezer esan, badaezpada ere, hura gauza baitzen mutikoaren burutazioari akatsen bat aurkitzeko, beste askotan egiten zuen bezala; ilargira joateko zurezko kohetea egin nahi izan zuenean bezala, esaterako.

Anaiaren eskua behin eta berriz zabaltzen zen, ordea, eta, Nosferaturena balitz bezala, Aitzolen lepo inguruan hedatzen zen indar beldurgarria sortuz. Itomena, beldur biziaren itomena, harekin batera etorri ohi zen. Anaiak ideia gaizto asko izaten zituen, gainera, gaiaren inguruan. Behin, adibidez, afal aurretik ohepean ezkutatu zuen etxeko txakurraren katea eta, Aitzol txikia oheratu zenean, beti bezala, anaia geroxeago ondoko ohean sartu eta, argia itzali ondoren, eskua ohepera luzatu eta katea arrastaka mugitzen hasi zen poliki-poliki.

—Mamuuuaaa, Aitzoool... Mamuuuaaa naiz eta zure bila nator.

Aitzol, jakina, amari deika hasi zen ilunpean izaturik, eta gau hartan anaia nagusiak egundoko errieta jaso behar izan zuen.

Aitzolek, ordea, egoera eta bizipen haietatik

ondorio gero eta argiagoa atera zuen, behin denbora pixka bat igaro eta ikaraldien eragina baretuz gero: gustatu egiten zitzaion beldurraren zirrara. Hasieran oso gaizki pasatzen bazuen ere, atsegina zitzaion bihotza aztoratzen hasi eta taupaka bizi-bizi sentitzea. Gogoko zuen arnasa larria hartu beharrak garunean eragiten zion zorabio txiki antzekoa. Baina, agian gehien gustatzen zitzaiona, beldurrak jota zegoenean, beldurraren erabateko morroi bihurtzen zenean, hankak mugitzea galarazten zion sentsazio menperaezin hura zen. Beldurra bere muin, kirio eta giharre guztiez jabetuta, estasi moduko egoera jasangaitz baina kitzikagarrian bilduta geratzen zen eta, hartatik ateratzeko egin behar zuen ahalegin handiak bizipen zirrargarria sortzen zion; sentsazio ahanztezina.

Anaiak bereak egiteari utzi behar izan zion gurasoen aginduz. Aitzolek, orduan, gustuko zituen sentsazioen bila, bide berri bat aurkitu zuen beldurraren mundu zirrargarrian noiznahi sartzeko: herriko liburutegia.

Baina E. A. Poeren edo R. L. Stevensonren ipuinak, Drakularekin berarekin batera, edo laster lagun min bihurtuko zen Frankensteinekin batera, eremu debekatuan zeuden: liburutegiko «handien lekuan». Eta Aitzol «txikia» zen artean.

Horregatik, Arantxa liburuzainari ezer esan gabe, txikien irakurtokira zihoan itxurak eginez, bentean handientzako lekura joaten zen eta han, apal artean edo mahaipen ezkutaturik, orduak eta orduak ematen zituen, berez debekatuta zeuzkala usten zuen liburu beldurgarriak irakurriz.

Anaiak garai batean eragindako sentsazio zaharrak bete-betean berpizten zizkioten liburu haiek. Baita zinemako pelikula batzuek ere, noski.

Eta urteak aurrera joan ziren, beste idazle eza-gun hark esaten zuen bezala, denboraren gurpil handia mugitzen zen neurrian.

Aitzol, pixkanaka-pixkanaka eta urteetako prozesuaren ondoren, idazle bihurtu zen. Hogeita hiru urte bete zituenean bakarrik bizitzen jarri zen Araba eta Gipuzkoa arteko mendialdeko etxe zahar batean idazteari denbora, indar eta kemen oro eskaini ahal izateko. Ia denetarik idazten zuen arren, ez zuen inoiz alboratu bere gai kutuna. Orain, berriz, idazle bizimoduan eta mutiko txiki izateari aspaldi utzita, ez zuen berdin bizitzen beldurrekiko harremana. Pozik zegoen, alde batetik, beraren eta beste idazle batzuen lanari esker beldurraren generoa herriko literaturan duintasunez eta emaitza onez sartzea eta neurri batean garatzea lortu zelako, baina oraingo sentsazioa ez zen jadanik zirraragarria: gazi-goza zen.

Literatura genero guztiak herriaren baitan sortzen dira eta herriarentzat omen dira. Aitzol zorte oneko idazlea zen. Herri literaturan inoiz lehenago landu ez ziren hainbat gai sortu eta argitaratu ahal izan zituen, eta irakurleengandik –herritarrengandik, beraz– deiak eta gutunak iristen zitzaizkion: «Noizko hurrengoa? Noiz beldurrezko liburu berria?». Erantzuna, ordea, beste hamaika kontutan bezala, ez zegoen idazlearen esku. Editoreak ziren liburu preziatuak kalera-tzeko ahalmena zutenak eta, hauek, azken aldian, garrantzirik gabeko generotzat edo arinkeriazko literaturatzat hartuta zeukaten beldurrezkoa.

Genero gotikoarenak egin zuela, aspaldi egin ere, pentsatzen zuten.

Liburu zirraragarriak bakanduz joan ziren. Zenbat ote dira liburuak betirako tiraderan uzteko idazten dituzten idazleak? Eta liburuen bakantzearekin batera, beldurrak eragindako zirrara ere bakanduz joan zen, bakanduz ia erabat desagertu arte... beldurra gure artetik ia erabat ezkutatu arte.

